

# BALEIKE

271. ZENBAKIA. EURO BAT  
2017ko ABENDUA

[www.baleike.eus](http://www.baleike.eus)

MADDALEN ARZALLUS

## BERTSOLARI TXAPELKETA OHOLTZATIK

DE LONGHI  
INISSIA



Nespresso

59€

20€ opari kafetan

DE LONGHI  
ESSENZA  
MINI



Nespresso

69€

20€ opari kafetan

DE LONGHI  
EDG 305



Dolce  
Gusto

99€

ROOMBA  
866



499€

269€

ROWENTA  
RH9057



ROWENTA  
RH8829



199€

ROOMBA  
605



249€



24"

169€

SAMSUNG  
LEDa UE24H4003

Endañetaren  
2018ko  
egutegia  
eskura  
gure dendan



24"

229€

28"

249€

Smart TV

LG  
24MT49S  
28MT49S



ENDAÑETA ZUMAIA  
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
www.endañetazumaia.com

**TIEN 21**



Arnaitz Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.eus

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Maialen

Odriozola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet,

Peio Romatet, Arnaitz Rubio Aprea, Iosu Alberdi,

Jose Manuel Castillo, Jabi Gonzalez Toston,

Izaskun Urbieta, Miren Osa, Sara Ibarburen eta

Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

publizitatea@baleike.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legia gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOKIKOM**

13  
baleike +

## MENDE ERDI ZUMAIAN KIROLA SUSTATZEN

5  
elkarrizketa  
MADDALEN ARZALLUS

20  
erreportajea  
MARIA ETA JOSEKO  
MOJEN AGURRA

26  
musika  
MARLIK

30  
agenda  
ABENDUA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



**Gipuzkoako Foru Aldundia**



**Zumaia Udalak**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua





**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



diseinua  
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
tel.: 943 14 31 22 ■ fax: 943 14 31 20  
a3@a3zumaia.com ■ www.a3zumaia.com

f t w i



**AL-ANON**

Alkoholiko senide eta lagunen elkarteak  
**Tel. 650 265 963**  
Ordutegia: asteazkenetan, 20:00-22:00  
larunbatetan, 19:00-21:00

**Agurtzane Okindegia**



Erribera 2 • 943 862 152



**AIZPURUA**

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

**ALBERDI**

dekorazioa

• Eskaiola  
• Pladur-a

696 726188  
943 143261



**Amama** taberna

tel.: 943 543 164  
amamataverna@gmail.com  
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)



**ATARI**  
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Ardantzabide, 16 Tel. 943 509 169

**Ardantzabide**

ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com f

Denda: Txomin Agirre, 4 Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 862 532 Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**

ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroetzea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5 www.argisun.com  
tel. 943 861 995 info@argisun.com



**OKINDEGIA**  
Arkupe

Nagusia 2 • tel. 943 861 501  
ZUMAIA

OGI-EDER



**Arruti**  
ARROPA DENDA

ANGELES SORAZU 1 BEHEA  
943 543 406  
20750 ZUMAIA (GIPUZKOA)



**Bosch Car Service**

**Autos Zumaia**

Gasolina injekzioa Balaztak, ABS, ESP  
Diesel injekzioa Mantentze mekanika  
Elektrizitatea/Elektronika Motorraren mekanika  
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943 861 485  
autoszumaia@bosch-bcs.com

**Azkue**

www.ricardoazkue.com

Txomin Agirre 4, behea tel. 615 793 406 / 943 862 651  
elena@ricardoazkue.com fax: 943 862 748



**Bakun**

ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25 tel./fax: 943 148 306  
20740 Arroa bakun@euskalnet.net



**Basadi albaitaritza**

Ribaitaria Itaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
www.basadialbaitaritza.com  
www.basadialbaitaritza.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 15-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatetan ituta  
Lamiakobako: 605 728 737 Eltxez ebeko zerbitzua



**BASUSTA**  
erretegia • asador

José Blázquez

Pafila Etxezarreta, 25 Tel.: 943 86 20 73  
943 86 04 38  
20750 Zumaia (Gipuzkoa) asadorbasusta@hotmail.com



**Braky's**  
Okindegia • Kafetegia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289


Maddalen **ARZALLUS** | **BERTSOLARIA**

# “Bertsolaritza ez da **lau urtean** **behin** gertatzen den zerbait”

Euskal olinpiadak balira lez, Bertsolari Txapelketa Nagusia azken hilabeteetako agenda guztien protagonista bilakatu da. Maddalen Arzallusekin izan gara, bizitakoaz eta aurtengo edizioa ematen ari den uneez hitz egiteko.

ELKARRIZKETA

TESTUA: MIREN OSA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA





Gauza bat uzten denean edo zerbaiti amaiera ematen zaionean —harremanak, lana, zaletasunak— arnasa hartzeko hartutako parentesia dela pentsa daiteke. Kasuan kasu, etenak proiektu berriei gogotsuago heltzeko ere balio dezake. Baina iragana berriz itzultzen da eta une batzuk mugarririk bilakatzen dira atzean utzitakoari berriz ekiteko. Barru-barruan har bat sentitu zuen Maddalen Arzallus Antiak (Hendaia, 1993) orain dela lau urteko Bertsolari Txapelketa Nagusia ikustean. “Txapelketak barruko harra berpiztu zidan eta bertsolaritzara itzultzeko beharra sentitu nuen”. Helburuak beteta, “oso gustura” amaitu du aurtengo jarduna. Unerik gogoangarrienetariko bat ere utzi du: Carles Puigdemont Doraemonez mozturatu zuen Irungo agurreko bertsoan.

**“Pronpronpron, gora eta gora beti”... Carles Puigdemont? Baina non da Doraemon? Bietako bat izanda ere, a zer nolako oihartzuna izan duen zure Irungo azken bertsoak.**

Egia esan, ez nau gehiegi harritu: horrelako bertso berezi bat kantatzen duzunean badakizu zabaldu daitekeela.

Espero ez nuena da Antena 3en azaltzea, baina, zorionez, bixikeria gisa geratu da eta ez diote bigarren bueltarik eman. Rajoyk ikusi bazuen grazia egingo ziolakoan nago. Istorio honetaz poz handiena ematen didana da ume txikiek eskolan kantatzen dutela ikustea; pozten nau beraiei ere Txapelketa iritsi zaiela ikustek.

**“Bertsolari bat kantatzen ari denean kanpoko mundua desagertu egiten zaio”**

**“Gero eta neska gehiagok jarraitzen dute aurrera bertsoan eta azkenean hori azaleratu den eguna iritsi da”.**

**Baina nola bururatu zitzaizun Kataluniaz Doraemonen doinuarekin aritzea?**

Aurretik pentsatu nuen agurra. Bezperan, aitaren urtetako afaria zela eta, iloba txikiarekin jolasean nenbilela, Doraemon abesten hasi zen “pronpronpron gora eta gora beti”. Bat-batean, ez dakit nola, Carles Puigdemont irten zen, errima egiten dutelako ziurrenik. Ilobak esaten zidan ez zela horrela, Doraemon zela eta nik ezetz, Puigdemont

zela. Konbentzitzea ere lortu nuen! Gero buelta batzuk eman nizkion: “Katalunian egun on, Belgikan gabon”. Aldaketak egin nituen eta Ametsi erakutsi nion. Irunen abesteko esan zidan, zuzenean. Nik ezetz, ez nintzela ausartzen. Eta hark baietz, nik banuela hori abesteko askatasuna. Saioa aurrera zihoan heinean, ohartu nintzen besterik ez nuela buruan eta ezin nuela beste agur batean pentsatu. Horren ondoren gertatu zena badakizue.

**Bertso umoretsua da. Gustura jarduten duzu umoretik abesten?**

Bai, umorea nigan zentratu dela esango nuke. Txikitatik izan da horrela. Norberak bere estiloa izaten du eta ondoren esperientziak markatu egiten dio. Esaterako, saio batera joaten bazara, gaiak pertsonalizatuagoak izaten dira. Txapelketan ez, baina saioetan bai. Zugan pentsatuz jartzen dituzte gaiak. Batzuei beti bakarka kantatzea tokatzen zaie, beste batzuei inoiz ez, beste batzuei seriotik gehiago, umorea beste batzuei.

**Txapelketa amaitzen denean, jendeak gogoan izango du Doraemonen bertsoa, baina, orokorrean, nola sentitu zara berriz zeure burua hor barruan ikustean?**

Oso gustura aritu naiz Txapelketan. Hasiera-hasieratik, zozketa egin genuenetik, Tolosan kantatzeko gogoia nuen. Zerbaitek esaten zidan han kantatuko nuela. Zozketa iritsi zenean, ez nintzen harritu. Oso gustura hartu nuen albistea. Orduan, hasi aurretik, ordurako, oso gustura nengoen. Eta zer esan Tolosaz... publikoa bero-bero zegoen! Pare pare izugarritzko jendetza ikusten zen. Gozatu egin nuen. Bertsorik txarrena kantatuta ere Bruce Springsteen zinela ematen zuen. Aurrera pasatzea *ginda* izan zen. Irunera ere gustura iritsi nintzen. Aukera polita zen, besteak beste, Maialen Lujanbio eta Aitor Sarriegirekin batera oholtza gainean egoteko. Tolosan ere maila handia zegoen, baina Irunen erantzukizuna beste batzuk zutela sentitzen nuen. Saio hartan denetik izan nuen: ofiziotan ez nintzen hain gustura gelditu, lotuta sentitu nintzen. Bakarkakoan, ordea, hobeto jardun nuela uste dut. Orokorrean, oso gustura nago egindako lanarekin.

**Zer moduz doa aurtengo edizioa?**

Kanpotik ikusita, Txapelketa betikoa da: jende andana mugitzen du, euskarari arnasa ematen dio eta esango nuke euskaltzale askoren hauspoa dela. Astebururo han eta hemen daudenak ere izugarritzko meritua dute; gaur Bastidan, bihar Maulen. Horretan ez du hutsik egin. Saio aldetik, denetik egon da: lan oso politak izan dira, baina uste dut oraindik



ez dela lortu saio biribilik. Ez dakit non egongo den akatsa, baldin badago, baina iruditzen zait hori falta dela; saio batean publikoa guztiz betetzea. Bi saioetatik bat aukeratu beharko banu, Tolosarekin geratuko nintzateke.

**Hilabete hauetan bertsolaritzaz asko hitz egiten da. Aduitu asko ateratzen da bat-batean. Zer pentsatzen duzu “jakintsu” horietaz?**

Kanpotik horrela ikusten da, baina mundu honetan gabiltzanontzat bertsolaritza ez da lau urtean behin gertatzen den zerbait. Hala ere, egia da lau urtean behin *boom* handi bat gertatzen dela, olinpiadekin bezala edo futboleko mundialarekin bezala. Kritikei dagokienez, aberasgarria iruditzen zait aldizkari edo egunkarietan bertsolaritzaz asko dakien jendea egotea. Baina bestelakoek ere egon behar dutela uste dut. Guztiak dira ongi etorriak. Hori bai, bertsolaritzari buruzko kritika baldin badago oinarrian.

**Aurtengo txapelketan, bertsolaritza egiteko modu berria edo bigarren irakurketa behar duten bertsoak ari gara entzuten. Andoni Egañak aurrekoan esan zuen denak lurra lokazten ari direla eta ea nor erortzen den aurrera. Bertsolaritza aldatzen ari da? Txapelketa hau berezia ari da izaten gai eta lanketa aldetik?**

Txapelketa barruan gaudenean, normalean ez ditugu kritikak irakurtzen, baina argi dago bertsolaritza aldatzen doala. Bertsolaritza aldatzen doa gizartearen aldaketan ari delako. Gainera, bertsolaritzaren gauza on bat da bat-batekoa dela eta orduan gizartearen dagoen aldaketa bat berehala azaleratzen dela. Agian antzerkian, artean edo musikan lanketa bat behar da. Azkenaldian transgenerotasunaren gaia modan dago; orduan, ez da harritzekoa bertsoan ateratzea, ikusita, gainera, zeinek heldu zion gaiari (Maialen Lujanbiok). Dena ez da berdin iristen pertsona guztietara. Horrelako gai bat “zaharragoi” edo “kontserbadoreagoi” ez zaie berdin iritsiko, baina horretaz pentsatzen ezin dugu kantatu; bakoitzak uste duena kantatu behar du. Ez bada gustatzen, ez da gustatzen, baina beraiek izango dira atzean geratzen direnak. Joango dira ohitzen, pixkanaka.

**Emakumeen presentzia nabarmena ari da izaten: bai kopuruaren aldetik, baita kalitatearen aldetik ere. Hainbat saiotako irabazleak nortzuk izan diren begiratzea nahikoa da emakumeak oholatza gainean indartsu ari zaretela antzemateko. Iraultza txiki bat da?**

Ez dut uste emakumeok iraultzarik egiten ari garenik. Ez gara inori lekua kentzen ari. Bertsolaritzan, urteetan atzera eginez gero, argi ikusten da emakumeek ez zutela beraien lekua; ez, behintzat, espazio publikoan. Oso pribatua zen beraien eremua. Etxeetan egiten zutela? Hor dudarik ez dago. Pixkanaka hartu dute lekua bertsoan; lehen pribatu zena orain publikoa



Tolosako saioan abestu zuten Maddalen Arzallusek eta Jon Maiak. Ion Zaldua aritu zen gai jartzaile lanetan.



Finalurrekoetan, lehen itzuliko bigarren saioan aritu zen Maddalen, Irunen.

egin da. Horrek bere denbora behar izan du, bere lana eta bere “iraultza txikia” edo, behintzat, kontra egitea, baina nik uste azkeneko urte hauetan nahiko natural dagoela gaia. Bertso eskoletan begiratzuz gero, nesken eta mutilen kopuruak berdinduta daudela esango nuke. Gero eta neska gehiagok jarraitzen dute aurrera eta azkenean hori azaleratu den eguna iritsi da. Aurtengo edizioan emakume asko egon dira; hori baino gehiago: aurrera egin genuen kopuruak berdinak ziren, hau da, bederatzi eta bederatzi. Orduan, ez dut uste kasualitate denik, normaltasun bat azaleratzearen ispilu bat baino ez dela baizik.

**Atzetik datozen ume eta gazteentzat eredu garria da emakume bertsolariak hor egotea.**



Bai, dudarik gabe. Gure erreferentziak oro urriak ziren: Maialen Lujanbio, Estitxu Arozena... Egun, gehiago gara eta estiloak ere anitzagoak dira. Orain pertsonalagoak gara, gustuko dugun bertsolaria ez dugu hainbeste generoagatik aukeratzen. Eredugarria da, baina ez nuke hainbeste neskengan zentratuko, baizik gehiago neska-mutilengan, orokorrean. Eredugarria baita ikustea bertsotan berdintasuna azaleratzen ari dela, futboleko gertatzen ez den bezala.

## Nola prestatzen da txapelketa nagusi bat?

Bakoitzak bere moduak ditu, baina formula zehatzik ez da asmatu oraindik: Einsteinik ez da agertu formula batekin.

Euskal Herriko Txapelketa Nagusia kantatu behar duzula jakiten duzuenean pixkanaka kontzientzia hartzen hasten zara. Maiatzean izena ematen da eta batzuk hor hasten dira entrenatzen. Beste batzuentzat goizegi izan daiteke. Ni neu lehenengo urteko apirilean hasi nintzen. Batez ere, bertso eskolatan elkartzeko: ofizioak jartzen, puntu erantzunak, bakarkakoak... Etxean ere asko landu dut. Baina bi prestakuntza maila daude eta biak oso garrantzitsuak dira: gaitasun maila eta norbere buruaren prestakuntza.

“Orain pertsonalagoak gara; gustuko dugun bertsolaria ez dugu hainbeste generoagatik aukeratzen”

**Bertso saio batean egon daitekeen jendetza kontuan hartuta, harrigarria da bertsolariek mantentzen duzuen tenplea. Nola egiten duzue hainbeste kontzentratzeko?**

Bertsolari bat kantatzen ari denean edo oholtza gainean dagoenean, kanpoko mundua ia-ia desagertu egiten da. Zure barrura sartzen zara eta ez duzu beste ezer entzuten. Oso zarata handia izan behar du zure mundutik ateratzeko. Jendeak entzuten dituen zaratak normalean ez ditugu antzematen. Gogoan dut Tolosan nire baitatik atera izana. San Frantzisko elizako kanpaiak jotzen hasi ziren eta entzun egin nituen. Jendeak dio 40 segundoko hotsa izan zela; niretzat bi segundo izan ziren. Ez

dakit nola egiten dugun kontzentratzeko, baina sinesgarria ez den arren, oso zaila da bertsolari bat bere mundutik ateratzea. Honekin ez dut nahi esan publikoak edozer egin dezakeenik, baina nolabait mundutik desagertu egiten gara.

**Aurreko Txapelketan ez zenuen parte hartu. Bertsolaritzatik aldenduta, beste zaletasun batzuei heldu zeniela aipatu izan duzu. Hausnarketa prozesu bat baino arnasa hartzeko tarteak izan da?**



## AT Gure errepideak mantentzeko baliabide gehiago.

**Hemen da, kamioientzat bakarrik sortutako lehenengo peaje sistema adimenduna.**

Peaje sistema berriarekin, gipuzkoarrak ez diren kamioilariak ere gure errepideen mantenuan lagunduko dute, modu zuzenean, lehen aldiz. Sistema jasangarri honek, N1eko trafikoa arinduko du. Sistema honek kutsadura akustikoa % 25 murriztuko du, gelditu gabe pasatzeko aukera ere emanez.



2009ko txapelketan kantatu nuen azkeneko aldiz. Ordu-ra arte, txikitatik, eskola arteko txapelketetan ibili nintzen. 2009ko Txapelketan oso sentsazio txarra izan nuen; oso-oso gaizki bukatu nuen. Horrek eragin zuen baita pentsaraztea ea hori nahi nuen edo zer zen benetan nik nahi nuena. Bestalde, nekatuta ere banengoen: unibertsitatean nenbilen, itzulpen-gintza ikasi dut eta kanpora nahi nuen joan. Argi dago bertsoak ez dizula aukera hori ematen. Arrazoï askok eragin zuten. Hausnartzeko baino gehiago, arnasa hartzeko balio izan zidan. Bertsoak ahaztuta izan nituen. Berriz bertsoan hasi nintzenean, erabat ahaztuta nituela pentsatu nuen.

Aurreko txapelketan ordurako har moduko bat hasi nintzen sentitzen: sarri, oholtzan baino ideia gehiago izaten dira oholtzatik kanpo. Etengabe burua martxan nuen eta txapelketan zergatik ez nengoen galdetzen nion neure buruari. Hortik aurrera berriro hasi nintzen. Ez naiz damutzen utzi izanaz, ezta berriz hasi izanaz ere.

### **Bakarkakoak begiz jota izan dituzula esan izan duzu beste elkarrizketa batzuetan. Helburu moduan jarri duzu kartzelako proba txapelketa honetan. Bete dituzu helburuak?**

Esan liteke gutxi gorabehera baietz. Bakarkakoari betidanik izan diot beldurra. Oso gauza pertsonala iruditzen zait eta bertso eskolan, esaterako, ez nuen lortzen bakarkako bat kantatzea. Gainera, derrigorrezkoa ez zenez, ez nuen beharrik sentitzen bakarkakoetan aritzeko. Ofiziotan zuretik ari zara kantatzen, baina aldi berean pertsonalagoa zara. Bakarkakoan gai irekiagoa jartzen dizute eta pertsonagoa zara. Onartzen dut oso polita dela, politena, baina niri kosta egin zait irekitzea. Lasai nahi nuen iritsi proba horretara. Prestatzeko orduan, bertso eskolan ez dut bakarkakorik kantatu, baina barrutik denbora asko pasa dut bertsoak lantzen. Tolosara bakarkakorik kantatu gabe iritsi nintzen. Mentalizatuta nengoen, baina ez nintzen erabat gustura gelditu; oso konforme bai, baina gustura ez. Irunen, aldiz, oso gustura gelditu nintzen nahiz eta Maialenen bakarkakoak denok itzalpean utzi gintuen.

### **Nora begiratzen duzu kantatzen duzunean?**

Nik uste aurrera, gora. Baina saio amaieran galdetuz gero, ez dut jakiten nora begira egon naizen. Irunen, esaterako, jende asko zegoen, baina gehienak bazterretako harmailetan. Pare pare pareta handi bat eta erloju bat genituen. Hasieran, igo nintzenean, berehala esan nuen, “A zer pareta!” eta “Hori erlojua!”. Saio amaieran ohartu nintzen ez nintzela ez paretaz ez erlojuaz akordatu ere egin.

### **Oholtza gainean egoteak zirrargarria izan behar du. Zein da gehien gustatzen zaizun unea?**

Oholtzara igo aurreko momentuak nabarmenduko nituzke: jendea begiratzen diot eta hori izaten da jendea ikusten dudana momentu bakarra. Hor sentitzen da nola dagoen jendea, nola dagoen plaza. Hasieran gure izenak esaten dituztenean ere bai. Jendearekin konektatu ahal dudana uneak dira berezienak, hasiera eta bukaera. Baita bertsolariak azken bertso

## **Maddalen Arzallusentzat bertsolaritza zer den**

Bertsolaritzak hitz asko ditu, baina tresna bat izan daiteke. Denok eduki beharko genuke norbere burua askatzeko modu bat, izan pintura, izan garraxi egitea edo izan bertsoan aritzea. Niretzat bertsoa neure burua askatzeko tresna bat izan da. Konturatu naiz nire momentu on eta txarrenetan bertsoa jo dudala eta horrela kanalizatu izan ditudala nire sentimenduak. Tresna beharrezkoa da, baita ere, gure kultura aurrera ateratzeko, gure hizkuntzarekin jolas daitekeela ikusteko eta jendeak euskara berea egin dezan sentitzeko: bertsolaritza euskara ez bada, ez da ezer.



puntuagarria amaitzen duenean ere: une horretatik aurrera lasaitu egiten zara eta jarrera aldatzen duzu

### **Finalari begira, zein izango dira zortzi bertsolariak [elkarrizketa azaroaren 11n egin zen]?**

Amets seguru, Maialen ere bai. Sarriegi, Sustrai eta Igor ere ondo kokatuta daude. Beñat eta Agin ere borrokan izango dira. Aitor Mendiluze ere ezin da ahaztu.

### **Nor izan da aurtengo ustekabea?**

Ezusteko ona Iñaki Apalategik eman dit. Leitza oso ondo aritu zen. Nerea Ibarzabalek ere maila oso ona eman du; gainera, gazteena izanda, badu bere meritua. Zumaian oso saio ederra egin zuen.

### **Maialen Lujanbion bertsoaz gain, beste bertso azpimarragarri bat?**

Nerea Ibarzabalek Zumaian egin zuena, goxoki dendakoa. Berezia izan zen, originala eta antzerki puntu bat ere izan zuen. Oso ideia ona izan zuen.

### **Nork irabaziko du?**

Nahi-nahi, anaiak irabaztea nahi dut [Ametsek]. Maialen ere hortxe egongo da, baina zaila izango da. Hala ere, ederra izango litzateke beste norbaitek ezustekoa ematea. ■

# BIYONA

## BARNE DISEINUA INDARTUZ

2004AN IREKI ZITUEN ATEAK BIYONA BERRIKUNTZAK ENPRESAK ZUMAIAN. AURRETIK, AZKOITIAN HASI ZUEN BERE IBILBIDEA, ETA GEROAGO ZARAUTZEN ERE JARRI ZUEN HAZIA. 40 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DAUKA ETXEKO BERRIKUNTZETAN ARITZEN DEN ENPRESA HONEK. ORAIN, PAUSO BAT HARATAGO, BARNE DISEINUAN ERE JARRI DU ARRETA..

### ERAKUSTOKI BERRIA

13 urteren ondoren, Santiago auzoan kokatuta dagoen erakustokia aldatzeko ordua iritsi da. Bertan, etxerako behar den guztia jarri dute. Etxeko estantzia guztietako ideiak aurki daitezke bertan: bainugelarako, sukaldarako, egongelarako, logelarako... Horrez gain, leihoekin ere lan egiten dute.



### INTERIORISMOARI GARRANTZIA

“Etxeko erreforma egiteaz gain, bezeroek, gero eta gehiago, etxea janzten laguntzea eskatzen du”, nabarmendu du Josune Odriozolak, dendako arduradunak. Biyona Berrikuntzen apustua garbia da sektore horretan; barne diseinuaren edo interiorismoaren joera berrietara egokitu, eta bezeroaren behar eta gustuetara moldatu. “Erakustoki berriarekin, diseinuari indarra eman nahi diogu, eta bezeroei azaldu proiektuak ere egiten ditugula”.







## GREMIOEN KOORDINAZIOA

Enpresaren punturik indartsuenetariko bat gremioekin duen harremana eta elkarlana da. “Gu arduratzen gara bai aurrekontua egiteaz, bai obra baimena eskatzeaz eta gremio guztiak koordinatzeaz. Horrek bi abantaila on dauzka: obra azkar bukatzea eta bezeroa ezertaz ere ez arduratzea”. Urte askotako esperientzia dute etxeko erreforma integralak edo partzialak egiten, eta bezeroekin duten konfiantza erabatekoa da. “Ahoz ahokoak funtzionatu du gure kasuan, eta norbaitek gomendatuta asko dira etortzen direnak”, azpimarratu du.

## BERTAKO MARKEKIN LANEAN

Zumaiako dendan batik bat bertako marken aldeko apustua egin dute. Diseinu aldetik, esaterako, Treku, Ondarreta eta Codis bezalako enprekin egiten dute lan. Urola Kostako edo Gipuzkoako lantegietan jarri dute jomuga, beraz. “Iruditzen zaigu kalitate oneko produktuak egiten dituztela, eta bertakoak izanda, beraiekin elkarlanean aritzeak asetzen gaitu”.

Horrez gain, betidanik ezagunak diren markekin ere lanean jarraitzen dute. “Lehen mailako kalitatea duten etxeekin ere funtzionatzen dugu”.

## ZERBITZU PERTSONALIZATUA

Bezeroak dituen gustu, behar eta aurrekontuetara egokitzen dira. “Giltzarekin asko egiten dugu lan, hau da, bezeroak bere etxeko giltza eman, eta gudan konfiantza osoa jartzen dute lana aurrera eramateko”, nabarmendu du. Horretarako, bezeroekin duten harremana gertukoa eta bi noranzkoko da. “Elkar ezagutzea da gakoa, eta bezeroaren beharrak jakitea. Gustatzen zaigu askatasun osoarekin lan egitea, eta diseinuan indar handia jartzea”.

# BIYONA

Santiago auzoa

20750 Zumaia

Tel.: 943143443

<http://www.biyona.net/> [biyona@biyona.net](mailto:biyona@biyona.net)



## HITZORDU BIDEZ

Biyona Berrikuntzak dendaren ordutegia, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara da. Horretaz gain, larunbat goizetan ere irekita egoten da.

Normalean hitzordu bidez egiten dute lan.

“Formula horren aldekoak gara, eta hori nahi dugu bultzatu. Azkenean, antolakuntza aldetik hobeto bideratzen dugu lana”.

## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMALEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



## BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700



Amalako plaza, 13 tel. 943 862 385  
www.xantialtzariak.com



Erribera kalea, 6 20750 Zumai tel. 943 143 097  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet

**mara**

**MÁSMÓV.L**



## ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045

## ERTZ INFORMATIKA



Portatilen mugikorren  
eta tableten konponketak

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

## Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A

tel. 943 016 353

## UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumai (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 11 63 97

## Galdona



Mendato marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## BALEIKE



## Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola

tel.: 943 86 21 61

Txomin Agirre, s/n

20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

## GLENCOE

INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 behe  
tel. 670 391 777

**matrikulazioa dohainik!**



Erribera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

## yoana ileapaindegia

Amaia plaza,  
2 behe  
943 143 278



Ikastegi homologatua

## Golden Gate Institute hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, behe  
tel./faxa 943 865 020  
info@goldengateinstitute.com



# Mende erdi Zumaian **kirola sustatzen**

TESTUA:  
GORKA ZABALETA  
ARGAZKIAK: JAVIER  
CARBALLO, FOTO GAR,  
RAFAEL ZINKUNEGI  
ETA RAMON  
GURRUTXAGAK  
UTZITAKOAK

BALEIKE +

Herriko ume eta gazteentzat kirolean aritzeko ia aukerarik ez zegoela ikusirik, lagun talde batek Zumaiaiko Kirol Elkartea sortu zuen duela 50

urte. Hasieran, besteak beste, futbola eta eskubaloia sustatu zituzten, baina pilota izan da, batez ere, elkartearen ardatza.

Gaur egun herrian dauzkagun kirol elkarte sendoenetako gehienak garai bertsuansortu ziren, 1967tik 1975era bitartean. Eta ez da kasualitatea. Francoren diktadurak agintzen zuen artean, baina garai berrien haize freskoa sumatzen hasia zen euskal gizartean. Beste arlo guztietan bezala, kirolean ere loraldia gertatu zen, belaunaldi berrien bultzadari esker. 1967an Club Deportivo Zumaia (Zumaiaiko Kirol Elkartea gaur egun) sortu aurretik kirolean ezer ez zegoenik ezin da inola ere esan: Pulpok urteak zeramatzan hainbat kirol ekitaldi antolatzen, arraunean ere bazebilen jendea, plaiarioak antolatzen ziren, herri kirolerako erakustaldiak eta apustuak, pilota oso zabalduta zegoen, atletismo talde bat ere izan zen 1960tik 1964ra... Baina lasai asko esan daiteke Zumaiaiko Kirol Elkartearekin aro berri bat hasi zela. Ia segidan sortu ziren Zumaiaiko Kirol Elkartea (1967) eta Itxas-Gain piragua elkarte (1968); Zumaiaiko Futbol Taldearen aitzindari izan zen Zumaiaiko Herri Batzokia (1974); Aita Mari arraun elkartea (1975); eta eskubaloia ere garai hartan hasi zen, aurrena Zumaiaiko Kirol Elkartean eta gero Pulpon.

## Klubaren sorrera

“Hiru lagun juntatzen ginen igandero, andregaiak kuadrilla berekoak genituelako”, hasi da kontatzen Javier Carballo, elkarteko sortzaileetako bat. “Ignacio Letamendi, Juan Mari Zearreta eta hirurok, inbidiaz begiratzen genion garai hartan Zarauzko Kirol Elkarteari. Sekulako antolaketa zeukaten eta denetarik egiten zuten. Zumaian, berriz, ia ez zegoen ezer, are gutxiago umeentzat. Pentsatu genuen herrian ere behar zela kirol elkarte bat, eta hasi ginen jendearekin hitz egiten”.

1960ko hamarkada hartan bazen herrian kirol arloan-eta nabarmentzen zen lagun koadrila handi bat, *Los Mariachis* izenekoa. Angel Aperribai zen haien guztien burua eta zuzenean harengana jo zuten. Lehen bilera Luistarren egoitzako liburutegian egin zuten —moila ondoan, gaur egun Zipi Zape dagoen inguru horretan—, eta hara deitu zuten, baita ere, Blas Zarauz. “Oso pertsona dinamikoa zen, saltza askotan ibilitakoa, Poligonoko etxebizitzaren kooperatibaren sustatzaileetako bat, besteak beste. Guraso elkarteko kidea zen, plaiarioetako epailea, futbolari ohia... Guretzat garrantzitsua

◀ Zumaiaiko Kirol Elkarteko talde bat Zarauzko plaireroetan, 1968an.



zen taldean izatea, babes handia zen". Letamendi, Zearreta, Carballo, Zarauz, Aperribai eta Agustin Iturain izan ziren lehen bileran hartan, eta han erabaki zuten aurrera segitzea asmoarekin.

Handik pare bat egunera-edo, 1967ko urriaren 13an, 25 lagun bildu zituzten bigarren bileran, eta hantxe erabaki zuten elkartearen lehen zuzendaritza. Blas Zarauz aukeratu zuten lehen presidente, Javier Carballo presidenteorde, Jose Luis Lacarra idazkari, Ignacio Letamendi diruzain, eta batzordekide Agustin Aizpurua (Anadeko sortzaileetako bat), Angel Aperribai eta Juan Mari Zearreta. Zuzendaritza hura arduratu zen elkartea modu ofizialean eratzekeko tramite guztiak egiteaz.

### Lehen asmoa, futbola

Zumaiako Kirol Elkartearen lehen asmoa futbola antolatzea izan zen. Ordurako plaieroak jokatzen ziren Itzurunen Pulpok antolatuta –zortzi jokalariz osatutako taldeekin–, baina helduentzako txapelketa zen hura. Haurrentzat ez zegoen ezer. Hasi ziren Santiagoko paduran partidak antolatzen. “Itsasbeheran han basa gogorra egoten zen eta leku egokia zen jokatzeke. Han hasi ginen haur taldeekin; eta, sortu eta urtebetera, Zarauzko plaieroetara hiru talde eramane genituen, bi infantil mailakoak eta bestea helduena”.

Baina asmoa ez zen soilik hondartzan jokatzea. Zumaiaren futbol zelai bat eraikitzea zen nahia, eta horretan saiatu ziren. Zumaiako Udalarekin hitz egin zuten aukerak aztertzeke. Herriaren garapenerako planeamenduan bazegoen leku bat gordeta kirol azpiegiturentzat –gaur egun kiroldegia eta futbol zelaia dauden lekua–, baina orduan Udalak ez zeukan dirurik eta bertan behera gelditu zen futbol zelaiauen aukera. Ia beste hamar urte pasa ziren 1977an Egurko atzean lehen futbol zelaia (hartxintzarrezkoa) eraiki zenerako. Futbola gehiago garatzeko aukerarik gabe, beste bide batzuk nabarmendu ziren elkartearen jardueran.

### Eskubaloia Arranpla ondoan

Futbolarekin batera, pilotari ere hasieratik jarri zitzaion arreta berezia. Eta beste kirol batzuek ere izan zuten lekua. Adibidez, halterofiliak edota boxeok. “Rufo Bidasoro, Migel Zubimendi eta beste zenbaiten artean hasi ziren halterofiliarekin; eta boxeoa Odietako kantxeroak jarri zuen martxan, Izagak. Gaztetan boxeolari izandakoa, zenbait gazteri erakusten zien frontoian bertan”, gogoratu du Carballok.

Bada azpimarra berezia merezi duen beste kirol bat, gero bide luzea eta oparoa egin duena: eskubaloia. Gaur egun Pulporekin lotzen dugu erabat eskubaloia, baina Zumaiako Kirol Elkartek sortu zuen lehen taldea Zumaiaren. Horrela kontatu du Carballok: “Blas Zarauzek presidentetza utzi eta Juan Clamades Blancok hartu zion lekukoa. Blanco eskola profesionaleko [Alondegian zegoen] irakaslea zen, eta bazen eskola hartan Samaniego izeneko beste irakasle bat, eskubaloia bultzatzea proposatu ziona. Eta halaxe hasi ginen eskubaloiarekin, futbolaz eta pilotaz gain”. 1969an hasi ziren jokatzen, Arranpla ondoan. Sarea jarri behar izaten zuten, baloia erriora ez erortzeko. Erregionaleko hirugarren mailan jokatu zuten lehen bi urteetan, sei taldeko liga batean. Hirugarren denboraldian mailaz igo ziren. Talde hartan jokatu zutenetakoz batzuk dira: Gurrutxaga, Alkorta, Zaldunbide, Izaga, Artetxe, Alberdi, Argoitia, Manterola, Etxabe, Zearreta, Ansoalde (azpeitiarra), Martinez eta Egiguren, besteak beste.

Hiru denboraldi egin zituen eskubaloiak Zumaiako Kirol Elkartean. Carballoren ustea da ez zitzaizola merezitako arreta jarri, eta azkenean taldeak Pulporen babesean egin zuen aurrera, gaur egun arte.

### Pilotan zentratuta

Piraguismoa ere Zumaiako Kirol Elkartera batzeko zorian izan zen. “Errioren piraguan ibiltzen zen gazte talde bat bazegoen garai hartan, eta kirol elkartearekin bat egiteko proposamena egin genien. Hasieran baiezkoan egon ziren, baina azkenean beraien bidetik jarraitu zuten, kirol taldeaz gain elkarte gastronomikoa sortu nahi zutelako. Horrela sortu zen Itxas Gain, 1968an”.

Lehen urteetan hainbat bide probatu eta gero, azkenean pilotak hartu zuen indarra elkartean eta hartan zentratuta egin zuten aurrera. Pulpok antolatzen zituen hainbat txapelketa eta jaialdi, eta herriko pilotariek Pulporen lizentziarekin hartzen zuten parte. Baina Kirol Elkartearekin beste aurrerapauso batzuk eman ziren 1970eko hamarkadaren hasieran. 1971n Gipuzkoako Federazioak urteko klub onenaren saria eman zien, larruzko paleta txapelketa “bikaina” antolatzeagatik. “Sari hark erakutsi zigun bidea, eta pilotan buru-belarri murgiltzea erabaki genuen”, azaldu du Carballok. Orduan jarri zuten martxan pilota eskola ere, Angel Aizpurua Idiakezi esker. “Bera izan zen pilota eskolaren arima. Jose Antonio Aizpurua Paixanoren aita zen Angel; semearekin joaten zen pilotalekura eta han hasi zen







▲ Zumaia Kirol Elkarteko zuzendaritzako iraganeko eta gaur egungo hainbat kide: Goian, Jose Luis Eizagirre, Jose Mari Zubimendi, Manuel Mugertza, Rafael Zinkunegi, Luis Mari Alberdi, Jexux Mari Unanue, Javier Carballo, Joxe Zubizarreta; behean, Jexux Iribar, Jose Antonio Aizpurua, Iñaki Ostolaza eta Enrike Mendizabal.

► Eskubaloiz taldea: Goian, Zaldunbide, Zearreta, Gurrutxaga, Argoitia, Ansoalde eta Manterola; behean, Alberdi, Izaga, Etxabe, Alkorta eta Artetxe..



▲▼ Lehen urteetan hainbat talde osatu zituen ZKEk Zumaiaiko eta Zarauzko plaiarioetan jokatzeke.





◀ Hainbat haur eta gaztek ikasi duten pilotan Zumaiaiko Kirol Elkartean.



▲ Espainiako TXapelketako finalak Gasteizen (1973). Goian: Gipuzkoako Federazioko presidente ohi Chus Fernandez Iriondo, klubeko presidente ohi Javier Carballo eta Luis Mari Alberdi (esku huska); behean, Juan Mari Aierbe (pala motzean txapeldun), Ignacio Letamendi (pala motzean txapeldunorde) eta Erramun Ostolaza (pala motzean ordezeko).

umeei erakusten. Dozena bat urte pasako zituen umeekin lanean. Etxean gordetzen zituen pilotak goxo-goxo, eta jendea pilota eske joaten zitzaion”. Aizpuruak hasitako bideari beste batzuek eman zioten segida –Joxe Zubizarretak eta Carmelo Larburuk, besteak beste–, baina elkartean denek aitortzen dute Angel Aizpuru funtsezkoa izan zela.

### Dinastia Etxabe

Madrildik eta beste hainbat lekutatik jende asko etortzen zen Zumaiaara uda partean, eta aukera hura baliatzen asmatu zuen elkarteak, Dinastia Etxabe txapelketarekin. 1971n antolatu zuten lehen aldiz, eta sekulako arrakasta izan zuen. “Sanpedroen bezperan hasi eta irail hasiera arte jokatzeko astero-astero, ostegun eta larunbatetan, gaueko hamarretan. Jaialdi bakoitzean hiru partida jokatzeko ziren [pala motza, eskuz

beteranoak eta lehen mailakoak] eta orduko afizionatu mailako pilotari onenak etortzen ziren”, gogoratu du Luis Mari Alberdi pilotari eta elkarteko presidente ohiak. “Pala partidaren frontoiko atea itxi egiten zen, harmailak gainezka egoten zirelako [460 eserleku zeuzkan Odietak] eta ez zegoelako sarea-aren atzean jartzeko lekurik. Pala bukatzen zenean, ateak ireki eta beste jende pilo bat sartzen zen, kontrakantxan jartzen ziren aulkietan esertzera. Urte izugarriak izan ziren, sekulako ikusmina pizten zuen txapelketak. Pilotazaletasuna sustatzeko ikuskizuna izateaz gain, diru iturri garrantzitsua izan zen klubarentzat”, osatu du Carballo.

### Palaz eta eskuz

Esku pilotarekin batera, pala motzean, larruzko paletan eta palan aritzen ziren pilotariak ere bazituen klubak hasieratik.



Zure 20 euroak 30 bilakatzen dira.



www.bon10.eus

Zesta punta geroago iritsiko zen. Ignacio Letamendi, Erramun Ostolaza eta Jexux Mari Unanue izan dira klubean ari-tutako herriko palista nabarmenenak, txapelketa bat baino gehiago irabazitakoak. Taldea asko indartu zuten kanpoko pilotariak ere izan zituen klubak: Cristobal Etxaniz getariarra edota Juan Mari Aierbe eta Santos Salsamendi zarauztarrak. Unanuek gogoan dauzka klubean hasi aurretiko garaiak: “Ni mutil koskorra nintzela, Juanito Telleriak [erremontista profesionala izan zen], Joxe Uribek, Romualdo Artetxek eta Jose Antonio Zubeldiak jokatzeko zuten sarri Odieta, larruzko paletarekin. Gu Beheko plazan bizi ginen, eta haiek ikustera joaten nintzen. Laukoteko baten bat falta zenean, inguruan genbiltzanoi jokatzeko aukera ematen ziguten”. Zarautzen jokatu zuen lehen txapelketa Unanuek, Javier Carballorekin bikotea osatuta. “Beste bi bikotek ere jokatu zuten txapelketa hura: Letamendik Bernabe Apestegirekin, eta Ostolazak Carmelo Mendezekin”. Zumaian hain garrantzitsua izan den larruzko paletak ez du jarduerarik 2011z geroztik.

Esku pilotari dagokionez, Luis Mari Alberdi nabarmendu da besteen gainetik. Gipuzkoako, Espainiako eta Munduko txapeldun izan zen Alberdi, eta profesio-naletan jokatu zuen. Zesta puntarekin alderatuta, esku huska aspaldian ez da inor nabarmendu Zumaian, baina Alberdik berak badu esplikaziorik: “Zesta puntan Gipuzkoan 80 bat pilotari ariko dira; eskuz 3.000. Ezin dira alderatu, askoz zailagoa da eskuz aurrera egitea. Horrez gain, Zumaian pilotak konpetentzia handia dauka gaur egun. Lehen pilota bai-no ez geneukan, baina gaur egun haurrek denetarik daukate aukeran”. Hausnarketari segida eman dio Javier Carballo: “Gaur egun pilota herri txikietan ari da mantentzen, handik ari dira pilotari handiak ateratzen. Altuna, Irribarria, Jaka, Albisu, Artola, Ezkurdia... Nongoak dira? Haien herrietan ez dago ez surfik, ez eskubalorik, ez ezer. Baina lana oso ondo egin duten pilota eskolak daude”. Olaldekin osatu du: “Zumaiaiko pilota eskolan ere antzera ari da gertatzen. Haur mor-doa etortzen da hasieran, baina gero, serio hasi behar denean, oikiarrak eta Agotekoak gelditzen dira. Besteak futbolera edo eskubaloira doaz”.

### Puntaren puntan

Klubean berriena da, baina zesta punta izan da azken ha-markadetan uztarik oparoena eta distratsuena eman duen modalitatea. Gogoan du Javier Carballo 1979an Gi-puzkoako Federazioako presidente aukeratu zutenean zesta punta hutsaren hurrengo zela Gipuzkoan. “Baztertuta ze-goien erabat, Bizkaian bakarrik zuen indarra. Modalitate bat hain utzita egotea ez zen onargarria, eta federaziotik pausoak eman genituen Gipuzkoan berreskuratzeko”. Mutriku sortu zuten lehen eskola, eta haren segidan, Tolosan, Andoain, Do-nostian... Zumaian, Mugertza izan zen giltzarri.

Ameriketan hainbat urtez profesional izan ondoren, xis-terak hartu eta Zumaia bueltatzea erabaki zuen Manuel Mugertzak 1970eko hamarkadaren amaieran. Hiru semeekin eta inguruan zeuzkan zenbait haurrekin zesta punta eskolak ematen hasi zen Odieta frontoian, eta halaxe hasi zen zesta puntaren historia modernoa Zumaian. Zesta punta eskola, modu formal eta antolatuan, 1988an jarri zen martxan, Ra-fael Zinkunegik zehaztu duenez. Garai hartan Zinkunegi eta Juan Mari Enbil ziren zesta puntako arloaren arduradunak. Manuel Mugertzak 1991ra arte egin zituen monitore lanak. Odieta eskola hartan hazitakoak dira dozenaka puntista, han ikasitakoak goi mailako figura izatera iritsi diren Alberdi, Enbil, Goikoetxea eta Lopez, besteak beste.

### Odieta ondoren

2007tik 2016ra, Odieta pilotalekua eraitsi zenetik Aitzuri berria inauguratu zen arte, azpiegitura faltari aurre egin be-har izan zion Zumaiaiko Kirol Elkarteak. Jexux Mari Unanue (2007-2013) eta Jexux Iribar *Olalderi* (2013tik aurrera) egokitu zitzaizkien kluba urte haietan gi-datzea. Biak bat datoz eta aitortzen dute egoera zail hartan gurasoen inplikazioari esker atera zela aurrera pilota. “Zestaz, maila batetik gora, lehen ere beste pilo-taleku batzuetara mugitu beharra zeuka-ten, Odieta txiki geratzen zitzaielako”, hasi da Unanue arrazoitzen; “baina bai eskuz, bai palaz, baita zestako umeak ere, pasa ziren eskolatik irten eta frontoia bertan izatetik, derrigor kanpora joan behar izatera. Horrek kalte handia egin

zuen. Horrek ekarri zuen norbaitek esfortzu handia egin be-harra ume haiek eramateko”. Zorionez, guraso talde bat sortu zen eta aurre egin zioten egoerari. “Zestako gurasoek meritu handia izan dute, jarraipena eman diotelako. Eskuzko haurre-kin eskolan egin zuten frontoian moldatu behar izan genuen, baldintza eskasetan, eta eragina izan zuen, dudarik gabe”. Di-nastia Etxabe ere Zumaiaitik Zestoara eraman behar izan zen.

Estutasun haiek atzean gelditu ziren Aitzuri pilotaleku berriarekin. Gaur egun 200dik gora haur eta gazte dauzka Zumaiaiko Kirol Elkarteak hiru modalitateetan (esku huska, zesta punta eta pala); 109 ziren 2015ean. Erronkak beste batzuk dira orain. “Ume piloa bai, baina gero, infantiletan hasten direnean takoeekin eta pilota pixka bat serio hartzen, orduan gehienek laga egiten dute, taldekako kiroletara joaten dira. Orain igual 80 ume baino gehiago egongo dira esku pi-lotan; dozena erdi geldituko dira”, azaldu du Inaki Ostolazak. Neskekin pala lantzen ari den Enrike Mendizabalek ere ara-zo berbera ikusten du: “Adin batetik aurrera Pulpura joaten dira, eskubaloira”. Baina, zailtasunak zailtasun, aurrera egite-ko borondatea dute klubean, are gehiago 50. urteurrenaren ospakizunean. Olaldekin jarri du azken puntua: “Ez dugu etsi behar. Herriarrak pilotalekura erakartzea da gure helburua eta erronka”. ■



**Gure-Txokoa**  
taberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaiak  
Tel.: 943 86 09 70

**Harvest**  
English School

...eta udaran ingaterrara ingelesa praktikatzera

[www.academiarharvest.com](http://www.academiarharvest.com)

San Jose, 11 bis. tel. 943 143 334

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

**INPERNUPE**  
**ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

**Iriondo optika**



Kantauri plaza, 8. Zumaiak. tel.: 943 86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943 85 19 84

**IRUDI OTS**



Ikuskizun orofarako solnu  
eta argiztapen alokairua  
Hots eta irudigintza aretoa  
tel. 943 63 16 32 [irudiots@irudiots.com](mailto:irudiots@irudiots.com)

**IRUITZ ILEAPAINDEGIA**



San Telmo 12  
Tel: 943 86 07 60

**TXALAPARTA**  
OPARIAR

Angelos Soraru, 2  
20750 ZUMAIK  
#Gosaketa  
tel. 943 143 089  
faxa. 943 430 637

**Talaira**  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**ORRAZTEGI**  
ZUMAIK



943 862 083

**JUARISTI**  
jatetxea


Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua

Baseldi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

**JUSTA**  
taberna

Erribera kalea, 20 [www.justataberna.com](http://www.justataberna.com)  
tel. 943 861 405 [justa@justataberna.com](mailto:justa@justataberna.com)

**K&BI** Patxika Etxezarreta, 18  
943 117 427



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,  
PVCzkoak eta mistoak  
Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

**kalari**



Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517

**DOIA**



Julio Beobide, 2  
943 574 986

**kuttun**  
lentzeria



erribera kalea tel. 943117936



22, OSTIRALA  
19:00 Musika Bandaren  
kontzertua

24, IGANDEA  
Eguerdia bitartean Niño  
Jesusen eskean  
12:30 Olentzerorekin  
kantuan  
15:30 Gabon Koruaren  
saioa kalez kale  
18:00 Gabon kanten  
lehiaketa  
18:00 Olentzero eta  
Gomezagoren etorrera  
18:30 Jaiotza ikuskizuna

30, LARUNBATA  
10:00-13:00/16:00-20:30  
eskubaloia: Iñaki Espilla  
gogoan  
22:00 Bertsolari gazteen  
saioa

31, IGANDEA  
12:00 San Silbestre VIII. Biko  
lasterketa mistoa

Eta urtarrilean...

4, OSTEguna  
18:00 Gaztainak Erkibe  
elkartearen eskutik  
18:00 Errege Magoentzat  
eskutitzak jasotzea

5, OSTIRALA  
18:30 Errege kabalgata

# EGUBERRIAK ZUMAIAN



Zumaia Udalak



*Abenduan*  
Zumaia txartela erabiltuta  
5, 10, 20 edo 50 €-ko sariak lor ditzakezu!



Maria Teresa **GORROTXATEGI**

# “Eskola bere momenturik **onenean** uzten dugu”

Maria Teresa Gorrotxategi karmeldarra, Maria eta Jose ikastetxeko zuzendaria izan da bi etapatan, eta penaz utzi du Zumaia. “Ez ditugu beti gauzak ongi egin, baina garaiak eskatutakora egokitzen saiatu gara. Orain, herriko lantalde fin baten esku utziko dugu eskola, eta pozik gaude”, nabarmendu du. 146 urteren ondoren, Karitateko Karmeldar Vedrunatarrek agur esan dute.

TESTUA:  
IZASKUN  
URBIETA ESNAL  
ARGAZKIAK:  
ARNAITZ RUBIO  
APREA

1944an Durangon jaio zen Maria Teresa Gorrotxategi ahizpa. Gasteizko Vedrunatar ikastetxe batean egin zuen batxilerra, eta bosgarren maila egitean, aldi berean, Magisteritzako lehen maila osatu zuen. Ikasketa haien hirugarren eta azken mailan, moja sartu zen, 1962an. Zumaia, 1969an etorri zen, 26 urterekin. Udara hartan, Bartzelonan zegoen, kurso bat egiten, eta kongregazioko nagusiak Zumaia joateko esan zion. “Oposaketak prestatzen ari nintzen, eta mediku azterketa egiteko eskatu zidan”, gogoratu du. Hala, gazterik, Maria eta Jose ikastetxera etorri zen. “Dena berria zen niretzat, inoiz Zumaia etorri gabea nintzen. Momentu politiko oso gogorak ziren. Diktadura bete-betea etorri nintzen: Burgosek prozesua, Martxoaren 3ko Gasteizko heriotzak, Txiki eta Otaegiren hilketak... Gizartea bor-borka zegoen, eta hemen barruan ere eztabaida handiak zeuden. Izan ere, iritzi ezberdineko mojak geunden”, kontatu du.

Gorrotxategi etorri zenean, bi helburu nagusi zituen: ikastetxea euskaldundu eta erlijioiko ohiturak, fedea eta kristautasuna ezberdin landu, beste era batera. Zortzi urte iraun zuen lehen etapa hark. “1977an joan egin nintzen, beno, bidali egin ninduten. Lehen esan bezala, trantsizio garaian, gure artean ere gatazka eta eztabaida zen nagusi. Orduan, borroka horrek jarraitu ez zezan, eta eskolaren jarraipena bermatzeko, ezkertiarrek ginenak eta eskuindarrak bidali egin gintuzten.

Neutralak jarri zituzten”, aipatu du. Hala, Bermeoko karmeldarren eskolara joan zen Gorrotxategi, urtebetez.

Han zegoela, beste bi mojekin elkarlanean, proiektu bat bururatu zitzaion. “Kongregazio bezala, gure eginkizuna zabaldu egin zen, eta herri euskaldun batean bizitzeko proiektu berezi bat nahi genuen martxan jarri. Gure nagusiari aipatu genion ea Setien gotzainarengana joan gintezkeen, eta hark gomendatu zigun proposamen harekin Goierri aldera joatea”, adierazi du. Gorrotxategik oposaketak aterata zituenez, Ordiziako eskola publikoan aritu zen 30 urtez lanean, harik eta 2005ean jubilatuta zen arte.

Tartearen, baina, Zumaia joateko bigarren deia jaso zuen. 1997. urtea zen. “Hogei urte lehenago eskola utzi nuenean, lanerako hainbat lerro geratu ziren finkatuak: adibidez, euskararen eta euskal kulturaren alde lan egitea, hau da, gure sus-traietara bueltatzea. Baina lanketa horiek guztiak bukatuta, zuzendari zegoenak erabaki zuen bere proiektua hor amaitzen zuela. Horrelaxe, lan ildo horiek jarrai zezaten, bueltatzea eskaini zidaten”. Bigarren etapa hor hasi zen, eta zuzendaritza lanak egin zituen 1997tik 2012 arte, hau da, Ordiziako irakasle lana eta Maria eta Joseko zuzendaritza uztartu zituen. “Eskola ezberdin aurkitu nuen bigarren etapa honetan. D eredua jarrita zegoen, adibidez. Urte batzuk lehenago egin-dako borrokaren emaitza zen, eta ni oso pozik nengoan”.

## Giltza, herriarentzat

146 urteren ondoren, agur esan dute karmeldarrek. Erre-lebo falta garbia izan da agur esatearen arrazoietako bat. Garairik onenean, 30 bat moja izatera iritsi ziren, gehienak irakasle lanetan. “2007an, 14 ahizpa ginen Zumaian. Ora-



Bi helburu nagusi zituen: ikastetxea euskaldundu eta erlijioiko ohiturak, fedea eta kristautasuna ezberdin landu





## AGURRA

*Mojak agurtzeko ekitaldia egin zen azaroaren 19an ikastetxeko aretoan.*

in, zazpi bakarrik gelditu gara. Azkenean, ezinean ikusten genuen geure burua”, aitortu du.

2012an utzi zion zuzendari titular izateari, eta zalantzarik gabe, lanpostu horretarako egokiena Isaak Aranberri zela esan zien Kongregazioko nagusiei. “Isaakek orduan 31 urte zituen, eta gazteegia zela esan zidaten! Baina nik egokiena bera zela uste nuen eskolak beste bide batzuk jorratzeko. Eta asmatu dugu! Eskola bere momenturik onenean uzten dugu”, azpimarratu du.

Ahizpa guztiak, Gorrotxategi izan ezik, Gasteizera joango dira elkarteak duen egoitza batera. “Ni Donostiara joango naiz. Kongregazioko elkarteen koordinatzailea naiz, eta maiatz-ekainean bukatuko dut nire eginkizuna, 6 urteren ondoren”.

Azaroaren 19an egin zieten azken agurra ikastetxeak, Udalak eta ikasle ohiek. Penaz joan direla aitortu du, baina

“Kongregazioko elkarteen koordinatzailea naiz, eta maiatz-ekainean bukatuko dut nire eginkizuna”



utzi duen lantaldean konfiantza osoa ipinita. “146 urte izan dira, eta ez dugu beti asmatu. Gaizki egindako gauzak ere egon dira, batez ere diktadura garaian, adibidez: dirudunen aldeko balantza, ezberdintasunak ikasleen artean... Onartzen dugu, bai. Baina harro gaude, era berean, eskolak gaur egun duen lan lerroaz. Trantsizio garaian hasi zen hori, eta familia guztiek dute lekua hemen. Gure testigua, giltza, herriari uzten diogu”.

# 146 urteko historiaren zertzeladak

Azaroaren 19an egin zen omenaldian agurtu zituzten duela 146 urte Zumaia etorri ziren Karmeldarren azken mojak. “Herriak egindako eskaera bati erantzutera etorri ziren orduko Zumaia txikira, hau

da, emakumeen hezkuntza eskubidea bermatzera. Mende eta erdi gure artean igaro ostean, agur esan dute, eskola herritarren esku utzita”, azpimarratu du Isaak Aranberrik, egungo zuzendariak.

1871ko azaroaren 26an etorri ziren Zumaia Karitateko Karmeldar Vedrunatarrak. 50 bat urte lehenago Katalunian sortutako kongregazioa da Karmeldarra. Zeregin garbia zuten herrian: garai hartan soilik gizonezkoei zuzenduta zegoen hezkuntza arautuan emakumeen presentzia ahalbidetzea. Patxita Etxezarretaren eta kongregazioaren hitzarmenari esker lortu zen hori. Etxezarretak zituen ondasunak eskolari bideratu zizkion, baina trukean betebeharrak ere zehaztu zizkion akordioan: egunero meza ematea, ikasleak (beharrezkoa bazuten) konfesatzea eta urtean zehar 150 elizkizun antolatzea bere izenean. Hala, abenduaren 4an, 118 neskarekin eta lau mojarekin zabaldu zituen atea Maria eta Jose ikas-tetxeak.

Handik hiru urtera, 1874ko irailaren 14an, euskara bultzatu eta sustatzeko hitzarmena sinatu zuten ikastetxeko zuzendariak eta Etxezarretak. Horri esker, etxean edo kalean hitz egiten zen hizkuntza araututa jartzea lortu zen. Bide batez, gure hizkuntza zaindu, landu eta maitatzeko bideari ekin zioten. “Pauso handia izan zen”, gogoratu du Aranberrik. Urtebetera, berriaz, lau eta bost urteko neskei ireki zizkieten eskolako atea. Lehen urte hartan, 90 ikasle hasi ziren. “Nahiko datu adierazgarria da, egia esan, garai hartan Zumaia herrigunea ez zen oso handia izango, eta ikasle asko iruditzen zaizkit. Baina hori da aurkitu dugun datua. Ez dakigu adin horretako neska guztiak etortzen ziren, boluntarioa zen edo ez...”, kontatu du.

Zumaia hezkuntza egoera pribilegiatua zen beste herri batzuetakoarekin alderatuta. Zortea zen herriko neskek hezkuntzarako sarbidea bermatuta izatea. Horregatik, eta eskubide hori beste herrietara zabaltzeko, barnetegia zabaldu zuten 1883an. Hasieran non egon zen ez dakite, baina geroago Forondako gaztelua erabili zuten horretarako. 1978ra arte egon zen barnetegia zabalik, 95 urtez, eta inguruko herrietako neskak etortzen ziren pentsio osoan edo erdi pentsioan.



## Patxita Etxezarretaren eta kongregazioaren hitzarmenari esker etorri ziren Vedrunatarrak Zumaia

### Txomin Agirrerena lana

1881ean etorri zen Txomin Agirre apaiz ondarrutarra Zumaia, eta bertan hil zen 1920an. Ikastetxeko kapilau izateko deitu zioten, baina beste hainbat zeregin ere bete zituen. Irakaslea izan zen, eta ikastetxeko zuzendaritza ere eraman zuen. Besteak beste, latina, gaztelania, erretorika eta poetika irakasgaiak eman zituen. “Ikasleek asko apreziatzen zuten, eta irakurri dugu hark prestaturiko euskarazko irakurketak eta liburuak oso graziosoak zirela”, kontatu du.

Agirrerena lana, ordea, ez zen mugatu soilik eskola edo hezkuntzako betebeharrak. Resurreccion Maria Azkueren bisita jasotzen zuen askotan aholku eske, eta euskararen arnagune eta euskaltzale askoren bilgune bihurtu zen ikastetxea garai hartan. Euskaltzaindiaren hastapenak bertan eman zirela esan daiteke; izan ere, 1919an sortu zen ofizialki Euskaltzaindia. Hasieran sartu ez bazen ere, handik hilabete batzuetara kide egin zen Agirre, baina ez zuen askorik iraun, handik gutxira hil egin baitzen.

### Diktadurako urte ilunak

Handik gutxira, Francoren diktadura etorri zen, eta garai hartako ezer ez dute aurkitu. “Diktadura garaiko ezer ez dago, ez dokumentu, ezta argazkirik ere. Urte ilunak izan ziren, eta eskola ere gizarte hartako isla izan zen. Garaiko testuinguruan jarri behar ditugu momentu hartan egindakoak”, azpimarratu du.



# Txomin Agirrek latina, gaztelania, erretorika eta poetika irakasgaiak eman zituen

Kongregazio barnean ere hainbat eztabaida egon ziren diktaduraren aldeko eta kontrako iritziekin. Azkenean, trantsizio garaian, neutroak ziren mojak jarri zituzten ikastetxean. “Sustraitara bueltatu nahi izan zuten, eta euskararen aldeko apustu garbia hartu zuten”.

Hain zuzen garai hartan hasi ziren oraingo eraikina egiten. Aurretik, San Jose eta Bonifazio Etxegarai kaleak lotzen dituen gunean zegoen kokatuta eskola. Momentuko beharrak asetzeko, eta espazioa handitzeko, egungo eraikina estreinatu zuten 1971n. Luis Peña Gantxegi arkitekto donostiarrak egin zuen, eta ia 8.000 metro koadro ditu. Eraikina kokatuta dagoen lurra erosi zuen kongregazioak. Dirudienez, jauntxo batena zen, eta etxebizitzak egiteko proiektua zegoen. Baina mojek berarekin hitz egin eta eskola bat egiteko behar zutela esan zioten.

Garai hartarako, izugarritzko tamaina duen eraikina da. “Momenturako abangoardia izan zen, baina, egia esan, ez dakigu zeinen ideia izan zen horrelako eraikin bat egitea. Orduan Zumaian, 4.000 biztanle bizi ziren, eta izugarria da hainbesteko eskola eta 700 pertsonatik gora sartzen den aretoa egitea”.

## Etorkizunari begira

60ko hamarkadan, lehen irakasle ez-erlijiosoak hasi ziren eskolan irakasgaiak ematen, eta 80ko hamarkadan, gehienak

## IRAGANA ETA ORAINA

*Maria Teresa Gorrotxategi  
Maria eta Jose ikastetxeko  
gaur egungo taldearekin.*



# LABARRA TABERNA ZUMAIA est.2016

Ondartxo plaza 5. Tel. 943 860 484



## MENDI - ONDO S.L. Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569  
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com



## BALEIKE.eus

Deskargatu doan app-a



CROISSANTERIA

pizzak  
hanburgesak  
bokatak...

## marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46

## "Muagi"

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 691

## Nikol taberna

Amniako plaza 343561816



## NOIA S.L. TAILERRAK ETA KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar induristegia, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumaia)  
609 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com



Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioako kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



construcciones y reformas, S.L.  
647 040 156  
686 911 257  
oliden@olidenreformas.com  
Oliden arkitek-tura  
678 875 652  
943 143 093  
lar@olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA  
www.olidenreformas.com

Fotografiak  
Teletxikiak  
Eskubizitza  
(Sukaleak, barneak)  
Industria mantenimendua  
Mota guztietako igelberrak  
Eskubizitza inspezio teknikoa (ITE)  
Zertifikatu energetikoa  
Fotobarietateak eta aholkularitza  
Eskubizitza berrak diseinatu  
Mota guztietako proiektuak



## OSKARBI KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranatz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbi@oskarbi.net



OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortu Induristegia, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 88 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com - e-mail: ostola@ostolaza.com

## Ostolaza altzariak

Tel/Fax: 943 86 13 25  
Julio Beotxe Ibañeta, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com



943 247 011  
www.laprimaverapizzeria.com

## TXIMISTA garagardotegia

Ogitortekak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondak (Kodilloak)  
Saltxitzak, oillaskak...  
Garagardak aukeran

Ondartxo plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

## TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3  
tel. 943 865 289



UKENDU  
PARABOTIKA  
BELARDENDA  
Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com



halakoak ziren. Gainera, 1978an, eskola mistoa izatera pasa zen. Barnetegiak itxi egin zituen ateak; izan ere, beste herrietan, emakumeen hezkuntza eskubidea bermatuta zegoen ordurako.

Urte berean, D eredia ezarri zen lehen aldiz. “Urte batzuetan B eta D ereduak mantendu ziren. Garai hartan B eredia zerbait berritzailetzat jotzen zen, baina urteekin ikusi zen ez zela euskararen ezagutza eta guztiz jakitea garantizatzen”, kontatu du. Hala, 1984-86 urte inguruan, matrikulazio guztiak D ereduan egiten hasi ziren.

Haur eskolaren ezarpena aitzindaria izan zen ikastetxean. 1981. urtea zen. Emakumeen lan munduratzeko beharri-  
zan batzuk eragin zituen eta bi urteko gela jarri zuten abian. Geroago etorri ziren urtebeteko gela, 1998an, eta 0 urtekoena, 2008an.

Bestalde, pixkanaka, zuzendaritza organoetan erlijiosoa ez ziren irakasleak hasi ziren sartzen. Hala, mojen zuzendaritza taldean lehen irakasle ez-erlijiosoa 1989an sartu zen. Horrekin batera, 1997an, lehenengo zuzendari pedagogiko ez-erlijiosoa izendatu zuten, eta, azkenik, 2012an, zuzendaritza titularra hartu zuen Isaak Aranberrik. “Aldaketa ez da egun batetik bestera izan, pixkanaka joan da

egiten. Errelebo edo belaunaldi berrien faltan, orain arte egon dira lanean, baina testigua pasatzeko momentua iritsi zaie”.

Hala ere, aspalditik, parte hartzeko dinamika bidez funtzionatzen du eskolak. “Kooperatiba bat izan gabe, kooperatiba bat bezala funtzionatzen dugu eta erabaki guztiak kontsentsuatzen dira. Herriaren eskaera bati erantzunez etorri ziren karmeldarrak hona, eta berriro ere herritarren esku utzi dute ikastetxea. Horregatik, askatasun osoa eman digute gure bidea egiteko. Hori bai, betiere zenbait oinarri finkaturik: Euskal Herrian gauden eskola bat gara, Zumaian kokatuta gaude, hizkuntza eta kultura bat dugu, eta giza eskubideak errespetatu behar ditugu”.

Duela hiru urtetik Konfiantzaren Pedagogia delako metodoa ezarri dute ikastetxean. Rafael Cristobalekin eta haren seme Jurgirekin batera, hezkuntzaren ingeniari-  
tza murgildurik daude.

“Unibertsitatearekin eta Rafael eta Jurgirekin elkarlanean, ikasleen ikasketa prozesua optimizatzeko ikerketan ari gara. Erreferentziazko eskolatza hartu gaituzte, eta gustura ari gara lanean. Erronka pertsonalak ditugu, espektatibak betetzeko nahia... Lerro horretan jarraitzeko asmoa dugu”, nabarmendu du. ■

## Duela hiru urtetik Konfiantzaren Pedagogia delako metodoa ezarri dute ikastetxean

*Itz*URUN  
TABERNA  
JAN/EDAN/ENTZUN  
IKUSI/ELKAR-HITZEGIN  
Itzurun Zuhaizbidea 1, 20750 Zumaia - 943 862 659



Argi, Eusebio, Xabat, Ugaitz, Rafa, Joxepo, Amed, Josemari, Iñaki, Oscar, Kost, Yagoba, Montxi, Carmela, Larra, Juanluis, Ladis, Aitor, Salbet, Kandido, Miel, Josune, Mikel, Iker, Olatz, Maripresen, Ritxi, Jokin, Manu, Joxerra, Maripi, Garazi eta Itzurungo ekipo guztiari **eskerrik asko** proiektu hau posible egiteagatik.

# ZALDI EROAREN BLUESA

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Marlik laukoteak taldearen izen bereko diskoa atera berri du. Bertsio gau baterako elkartutako taldeak jarraipena izan du eta bluesaren eta rockaren bidezidorretatik doazen hamar kantaz osatutako emaitza entzun daiteke dagoeneko.

Maialen Velardek (ahotsa), Beñat Fernandezek (gitarra), Ales Gorritik (baxua) eta David Gorritik (bateria) osatzen dute Marlik. Gazteak izanda ere, eskarmentua dute agertoki gainean. Beñat, Ales eta David aurrez beste rock taldeetan aritutakoak dira; Maialen, aldiz, nahiz eta musika munduan pausoak eman dituen, bertsotan aritzeagatik da ezagunagoa, eta, berak esan duen bezala, lehen aldia du halako musika talde batean.

“Norbaitek esan zidan hegoaldeko ukitua aurkitzen diola gure musikari”, dio Alesek taldeaz eta diskoaz hitz egiteko jarri dugun hitzorduan. Estatu Batueko hegoaldeaz ariko zen entzule hura, hainbat bluesman handien jatorria den Hegoalde mitikoa, hain zuzen ere. Blues musika da taldearen oinarrietako bat; Neil Young kanadiarraren kabalgata elektrikoak bestea. Izan ere, iazko santelmoetako bertsio gauean Youngen kantak jotzeko elkartu ziren taldekideak.

Arranplan jarritako oholtzara gau hartan igo aurretik izan ziren aurretik elkarrekin talderen bat sortzeko saiakerak. “The Grace of Dionysuseko Abraham Larrañagarekin blues batzuk jotzeko elkartu ginen. Beñat ere etorri zen, baina ez zuen aurrera egin. Aurretik, Luis Garcia, Beñatek eta hirurok beste saiakera bat egin genuen, baina hura ere ez zen atera. Ematen du hirugarren hau izan dela ona”, dio Davidek. Neil Youngen kantak jo ahal izateko Maialenekin kontaktatu zuten. “Neil Youngek bezala, tonu altuan abesten zuen norbait behar genuen”, azaldu du Davidek. Pertsona hori Maialen Velarde izan zen.

Mikrofono baten aurrean jartzeko esperientzia bazuen Maialenek bertsolari bezala, baina askorik ez musika munduan. “Ez, eta musika estilo honekin gutxiago. Niretzat kantatzea bazen zerbait desberdina. Neil Youngen kontzertu

hartan kantatzeko eskatu zidaten, halako ahots bat behar zutelako. Eta nik ez neukan Neil Young asko entzunda. Amak eta esan zidaten ea nola ez nuen ezagutzen. Baina, egia da, ez nuen ezagutzen!”, dio Velardek. “Bertsolaria izateak azkartasuna eman dio”, gaineratu du Davidek. “Gainera, bertsolari askok gaizki egiten duten zerbait berak ondo egiten du, eta da intonatzan dakiela! Ondo abesten duela!”. Barrez hasi dira laurak.

Oholtzara igo ziren, Neil Youngen lauzpabost kanta jo zituzten, eta hurrengo taldeari lekukoa pasa zioten bertsio gau hartan. Kanadiar hiperaktiboaren espiritua, baina barrenean geratu zitzairen, eta gau baterako proiektua izango zena, musika talde bihurtu zen. “Behin entseatzeko erritmoa hartzen duzunean erraza da engantxatzea”, dio Alesek. “Beste bertsio batzuk prestatu genituen eta [Itzurun tabernan] kontzertu bat emateko eskaera egin zigun aitak. Azkenean, ikusi genuen nahiago genuela gure kantak egiten hasi. Beñatek ehun mila kanta zituen etxean”, jarraitu du Davidek. “Kanta eta ideia pila bat genuen eta kanta berriak egitera animatu ginen”, amaitu du Beñatek.

Sexplotion taldea utzi zuenean hasi zen Beñat etxean kanta berriak konposatzen. “Han punk-rock musika jotzen genuen. Oraindik taldean nengoenean beste kanta mota batzuk egiten hasi nintzen, baina han ez ziren sartzen. Sexplotion utzi nuenetik hau sortu zen arte bizpahiru urte pasako ziren eta denbora horretan asko jo dut bakarrik, gitarra akustikoarekin. Azkenean beste modu batera jotzen ikasten duzu. Ez zara egongo raka-raka jotzen etxean!”, dio barrez Beñatek.

Bata punk-rocketik, bestea metal mundutik. David Izu Nauk taldeko bateria jotzailea izan da. Estilo aldaketa normaltzat jotzen dute biek. “Aldatu egiten zara. Azkenean, urtero gauza bera jotzen nekatu egiten zara. Une bat heltzen da

Beñat Fernandez:  
“Etiket eraman  
ditudan kanta asko  
daude. Maialeni  
esan izan diot nola  
ikusten ditudan  
gauzak, baina, gero,  
aldatu egin dira  
lokalean”





MUSIKA



Ezkerretik eskuinera: David Gorriti, Beñat Fernandez, Maialen Velarde eta Ales Gorriti

entzuten duzun musika horrek ez dizula ezer ematen, ezta entzuten duzunean ere; aspertu egiten zara. Aldatu egin behar da, eboluzionatu”, azpimarratu du Davidek. “Urte eta erdi daramat dunbal bikoitza jo gabe! Orain metala jotzea ez litzaidake erraza egingo, indar eta abiadura asko galdu dut eta”.

Beñatek sortutako musikaren gainean joan dira hazten Marliken kantak. “Etzetik eraman ditudan kanta asko daude. Maialeni esan izan diot nola ikusten ditudan gauzak, baina, gero, aldatu egin dira lokalean”, dio gitarra jotzaileak. “Niri garrantzitsua iruditzen zait musikari batek askatasuna izatea gauzak egiteko, nahiz eta kanta erdia eginda egon. Bakoitzak bere gauzak sartzen ditu, eta, jo eta jo, azkenean emaitza lortzen da”, jarraitu du Davidek. “Ez naiz diktadore bat esaten duena gauzak nola izan behar duten. Atera dena gustatu zait eta hasierakoa gogoan ere ez dut”, azpimarratu du gitarra jotzaileak.

Batek etxean ehun mila musika zituen; besteak, berriz, idatziz eta paperez betetako bost koaderno oso zituen. “Kanta batean melodia bazegoen, baina letra falta zen. Mila paper eta idatzitako mila gauza dituzten koadernoak ditut. Ireki nuen bat eta Amets Arzallusek egindako itzulpen baten letrak aurkitu nituen. Zerbait kantatzeagatik haiek kantatzen hasi nintzen, eta, azkenean, hori geratu da”, azaldu du Maialenek.

**Maialen Velarde:**  
 “Melodiarekin gogo  
 ematen didana  
 egiten, horrekin ari  
 naiz ondo pasatzen”

Letretan denetarikoa gaiak jasotzen direla dio abeslariak. “Denetik dago. Melodiek gai batzuei buruz kantatzeko gogo ematen dizute. Musika ilun batekin ez zara kantatzen hasiko zer pozik bizi naizen margarita artean! Batzuetan melodia bat nuen, lau lerro, eta hortik joan dira letrak hazten. Beste batzuk, *Sua* eta diskoaren amaierako besteak, bai izan dira: ‘Melodia bat dut eta zertaz hitz egin nahi dut?’”.

Bertsotan aritzeak lagundu ote dio letrak idazterakoan? “Neure helburua 10-8-7-6 horiekin haustea eta jolas gehiago egitea zen. Ez badu errimatu behar, ez dezala errimatu; neurri aldetik hitz bat kanpoan geratzen dela? Bada, gera dadila. Melodiarekin gogo ematen didana egiten, horrekin ari naiz ondo pasatzen”. Diskoa ateratzeko kantak abesteko modua finkatzeko balio izan diola ere azaldu du: “Melodiak ez

ziren oso itxiak eta egunero desberdin abesten nituen. Diskoak balio izan dit (behintzat, niri) jakiteko kanta zehatz horiek nola abestu behar ditudan”.

Aurtengo apirilean eman zuen taldeak lehen kontzertua, Itzurun tabernan. Zortzi hilabete geroago, lehen CDa ateratu dute. Diskoa Uxategiko grabazio estudioan grabatu dute, hilabete inguruan, Jurgi Taboadaren gidaritzapean. “Jurgi Izu Nauk taldeko abeslaria eta gitarra jotzailea zen. Izu Nauken



azken diskoa ere berak grabatu zuen. Ikasten joan da eta prozesu hori asko gustatzen zaio. Beti metal musikaren inguruan aritu da eta ilusioa zuen gurea bezalako taldeko batekin lan egiteko”, azaldu du Davidek, Izu Nauk taldean Jurgiren taldekide izandakoak. “Grabatzen hasi aurretik,

hilabete eta erdi egin genituen erabakitzen kanta bakoitzak zer soinu izango zuen. Grabatzera sartu ginenerako ideiak oso garbi genituen”, jarraitu du. “Ona zen zenbait gaita berak ere iritzia ematen zuela. Ekoizle lanak ere egin ditu zenbait unetan”, gaineratu du Beñatek. “Ilusioa ere ematen zigun ikusteak guk bezainbesteko ilusioa jartzen zuela”, nabarmendu du Maialenek.

Hamar kantaz osatzen da Marliken lehen diskoa. *Zuri* izeneko blues rock mugitu batekin hasten da. Bigarrenak, *Mugetan kobrek*, Neil Young and Crazy Horsen badu, mantsoagoa, pisutsuagoa. Diskoaren lehen zatian tartekatzen joango dira kanta mugituak eta mantsoagoak. Instrumental baterako tartea dago (*Mayo garlik*), baita euska-

ra eta gaztelania tartekatzen dituen *Con los pies en la tierra* ere. *Suan* azeleradoreari ematen diote eta *Labarretanen* blues akustiko bat jotzen dute, slide gitarra eta guzti. Bukaerarako uzten dituzte bi

kanta luzeenetakoak, *Tim Burton* eta *Zu gabe*, biak ere blues rock geldo bezain boteretsuak. Diskoa herriko zenbait tabernatan izango da salgai, baita kontzertuetan ere. Bandcampen duten txokoa ere oso osorik entzun daiteke.

Behin diskoa kalean, emaitza zuzenean erakustea izango da helburua. Oraingoz kontzertu bat dute hitzartuta, abenduaren 16an, Aizarnazabalen. “Grabazioan zentratu nahi izan dugu eta ez gara kontzertuen bila ibili”, aipatu du Maialenek. “Beti galdetzen dizute ea zerbait grabatuta duzun”, jarraitu du Beñatek. “Grabazio bat edukitzea garrantzitsua da. Urte berriarekin

ibiliko gara bila. Aizarnazabalen dugu kontzertu bat eta pentsatu nahi dugu Zumaatik jendea joango dela. Zumaian zerbait egingo dugun? Ez dakit aurkezpen bezala izango den, baina zerbait egingo dugu”. ■



## URTE ZAHARRA AGURTZERA, ZATOZ TALASO ZELAI HOTELERA

ERRESERBAK

[www.talasoterapiazelai.com](http://www.talasoterapiazelai.com)

tel.: 943865100

Afaria: 100 €

Afaria, egonaldia, gosaria, zirkuitua: 159 €





# ABENDUA-URTARRILA

## DEIALDIAK

**Kursaala Eskura:** Zumaia-  
autobusa doan, 18:40. Hurrengo  
emanaldia: Urtarrilak 15 Yuja  
Wang (sarrera norberak erosita,  
autobusaren erreserba  
kulturetxea@zumaia.eus  
943851056)

**Abenduak 11tik aurrera**  
Gabonetako Erakusleho Lehiaketa

**Abenduak 13-17** Klarinete  
maratoia

## ERAKUSKETAK

### Oxford aretoan

**Azaroak 28-abenduak 17**

DISTIRA Argazki erakusketa  
kolektiboa

**Abenduak 20-urtarrilak 7**

Gurs Experiences - AskatasunArte

**Urtarrilak 18-otsailak 4**

Genoveva Linaza

## ABENDUA

**13, asteazkena**

KLARINETE MARATOIAREN

HASIERA

17:30 Haur liburutegian ipuin  
kontaketa: *Petra Ipurdian Bost*  
*Letraren etxean kontatutakoak*, Ixabel  
Agirresarobe (5-8 urte)

19:00 Komentuan Klarinete  
Maratoiko ikasleen emanaldia

**14, osteguna**

20:00 Valentin Manterolaren  
estudioan pintxo pote musikala:  
*Klarinetea eta...*

22:00 Aita Marin zine forum: *Clash*,  
JBA. Zuz.: Mohamed Diab

**15, ostirala**

19:30 Komentuan kontzertua:

*Klarinete.eus*

22:00 Aita Marin antzerkia: *Ez dok*  
*hiru*, Tartean teatroa

**16, larunbata**

18:00 Komentuan klarinete  
laukoteen lehiaketa

**17, igandea**

13:00 Maria eta Josen Klarinete  
Maratoiko ikasleen amaiera  
kontzertua

19:00 Oxford aretoan Klarinete  
Maratoiko kontzertu berezia:  
*Chamber music*

**20, asteazkena**

17:30 Haur liburutegian ipuin  
kontaketa: *Hainbat kolore, hainbat*  
*zapora!!!*, Kontukantoi (3-6 urte)

21:00 Oxford aretoan Gabon  
Koruaren entsegu irekia

**21, osteguna**

Arratsaldean Santo Tomasak

**22, ostirala**

19:00 Oxford aretoan Musika  
Bandaren kontzertua

**23, larunbata**

09:15-14:00 Kiroldegian aretoko  
futbol txapelketa azkarra

17:30 + 19:30 Maria eta Josen  
haurrentzat antzerkia: *Golazen*

**24, igandea**

Eguerdia bitartean, Niño Jesusen  
Eskean

12:30 Institutu parean  
hasita Olentzerorekin kantuan

15:30 Gabon Koruaren saioa kalez kale

18:00 Eusebio Gurrutxaga plazan  
Gabon kanten lehiaketa

18:00 Goiko Torretik hasi eta herrian  
zehir Olentzero eta Gomezagoren  
etorrera

18:30 Eusebio Gurrutxaga plazan  
Jaiotza ikuskizuna

**27 eta 28**

Kiroldegian Gabonetako PINa

**27, asteazkena**

Gaztegunearen eskutik, irteera Txuri  
Urdin izotz jauregira

**28, osteguna**

17:30 Haur liburutegian ipuin  
kontaketa: *Kolorez estali*, Apika (4-8  
urte)

19:30 Torreberriko gaztetxean  
bertsoak eta antzerkia: *Erradikalak*  
*gara*

22:00 Aita Marin zine forum: *Train to*  
*Busan*, JBA. Zuz.: Yeon Sang-ho

**29, ostirala**

17:30-20:30 Oxford aretoan xake  
txapelketa

20:00 Maria eta Josen Korrontzi  
Benefic: Astindu + Korrontzi  
dantzan

**30, larunbata**

10:00-13:00 eta 16:00-20:30 Lubaki  
Kiroldegian eskubaloia: Iñaki Espila  
gogoan

22:00 Oxford aretoan Bertsolari  
gazteen saioa

**31, igandea**

12:00 San Silbestre VIII. Biko  
lasterketa mistoa: 12:00 gazteak,  
12:30 helduak

## URTARRILA

**3, asteazkena**

Gaztegunearen eskutik, irteera Txuri  
Urdin izotz jauregira

**4, osteguna**

18:00 Eusebio Gurrutxaga plazan  
gaztainak

18:00 Eusebio Gurrutxaga plazan  
Errege Magoentzat eskutitzak  
jasotzea

**5, ostirala**

18:30 Errege kabalgata

**11, osteguna**

22:00 Aita Marin zine forum

**12, ostirala**

19:30 Forondan, meditazio saioa  
Guneren eskutik

22:00 Aita Marin antzerkia: *Idiot*  
*Txow*, Ados teatroa

**14, igandea**

12:00 Aita Marin haurrentzat  
antzerkia: *Alizia*, Glu Glu

**25, osteguna**

22:00 Aita Marin zine forum

**26, ostirala**

19:30 Forondan Gune elkartearen  
solasaldia: *¿Hacia una inteligencia*  
*“artificial” más potente que la*  
*humana?* Javier Echeverría



• plater konbinatuak  
• ogitaratekoak  
• oilasko erreak

Urdin Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



E-mail: zumaiaautoeskola@hotmail.com

BASOIA 12  
20750 ZUMAIA  
Tel. 943861018 / Fax. 943016125



Jatetxea  
Kafetegia

Abai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



Txomin Agirre kalea 6,  
750 Zumaia, Gipuzkoa  
T. 943.143.057

www.eduoptika.com

EDU  
ZUMAIKO  
OPTIKA

RPS 18/16

# BALEIKE



# Galdona

**denda:**

Mendaro marinela, 1

tel.: 943 143 346

**biltegia:**

Jose M<sup>a</sup> Korta Industrigunea

Pab. A6.1, 2-5 mod.

tel.: 943 861 117

fax: 943 861 330



industriarako nahiz etxerako  
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



• Txarkuteria bikaina

• Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak





HH LH 943 86 08 09  
zumaia@zumaia.ez  
DBH BATXI 943 86 08 09  
zumaia@zumaia.ez

# ekosistema hezitzailea

Hezkuntzaren bidez, denon artean,  
herria indartzeko proiektua



Zumaiako  
Herri  
Eskola